

# *Euskal Eskola Publikoaren Jaia*



Publikoari  
hauspoa



**ordizia**  
bizi herria



# Publikotasunaren, euskararen eta aniztasunaren alde batuta

● Ordizia Euskal Eskola Publikoko kideen topaleku izango da.

● 1994tik antolatzen da. Igandean 31. aldia ospatuko da.

● Ahalduntzeko eta egindako lana aitortzeko eguna ere izango da.

## Laida Goiburua

**ORDIZIA** — Euskal Eskola Publiko-ko komunitateak Ordizian izango du hitzordua igandean. 1994. urtetik ospatzen den Euskal Eskola Publikoaren Jaia Goierrira, Ordiziara iritsiko da etzidamu, haren 31. edizioan, Urdaneta-Oiangu- ren ikastetxe publikoen eskutik. Ekaineko lehen igandean izaten da beti jaia. Ordiziako Euskal Eskola Publikoko komunitateak Mungia-koaren lekukoa hartu zuen iaz, eta ikasturte osoa dar- mate lanean, EHIGE Euskal Herri-ko Ikasleen Gurasoen Elkarte- en Konfederazioarekin batera. Hiru ardatz nagusitan oinarritu dute festa zein horren bueltako ekime- nak: publikotasuna, aniztasuna eta inklusioa eta euskara.

Abenduan aurkeztu zuten Euskal Eskola Publikoaren 31. Jaia. *Publikoa al do* leloa auke- ratu dute, Goierriko euskalkiari erreferentzia eginda. Publiko- tasuna txoko guztietara eraman nahi dute, aniztasuna modu po- sitiboan zabaldu, euskalduntzea bultzatu eta hezkuntza sistema publikoaren garrantzia azpima- rratzeko. Ordiziako Euskal Eskola Publikoko komunitateko kideek nabarmendu bezala, komunita- tea osatzen duten milaka lagun- en topaleku izatearekin batera, egun aproposa izango da igandea eskola publikoaren ezaugarriak gizarteratzeko: «Publikoa den neurrian denona eta denontzat da, euskararen eta euskal kultu- raren sustatzailea, herrian txer-



Euskal Eskola Publikoaren 31. Jaiko abestiaren aurkezpena, Ordiziako Plaza Nagusian, maiatzean. L.G.

tatua, hezkuntza-komunitatearen parte-hartzean oinarritua eta ber- ritzailea».

## Aitortza eta ahalduntzea

2019tik izan dute buruan Euskal Eskola Publikoaren Jaia Ordiziara eramatea, baina pandemia tarteko, atzeratu egin zuten pro- posamena, eta aurten iritsi da. Gainera, herriko ikastetxe publi- koetako batek, Urdaneta ikaste- txeak, 50 urte bete ditu aurten, eta horregatik urte polita bihurtu da festa antolatzeko. «Mungian

lekukoa ilusio ikaragarri jaso genuen, are gehiago jakinda urte berean Urdaneta eskolaren 50. urteurrenako ospakizuna ere izango genuela».

Ordiziako eskola publikoak herriaren euskalduntzean eta aniztasunaren kudeaketan egin duen lana aitortzeko aukera ere emango du festak. «Aitortza, batetik, eta saretzen, indartzen eta lanean jarraitzeko mezua, bestetik. Horixe delako eskola publikoko komunitatea ahaldun- tzeko bidea: elkarlana, ilusioa eta

proiektu komuna partekatze- ko indarra». Publikotasuna, euskara eta aniztasuna eta inklusioa izan- go dituzte aldarri igandean. Ikas- turte osoan ere hiru ardatz horien lanketa egin dute, ikastetxe pu- blikoetan bertan zein eskolatik kanpo, hainbat mahai-ingururen bitartez. Horrez gain, *Munduke- tariak* izeneko liburua argitaratu dute festaren harira, Patxi Zubi- zarretak idatzia eta Jokin Mitxe- lenak ilustratua, eta *Publikoa al do* abestia eta bideoklipa sortu dute Jon Maiaren letrarekin eta

eskolako guraso diren Kau Kori Kuraren musikarekin.

## Eskola Publikoaren rola

Ekimen guztiek izan dituzte oi- narrian aipatutako ardatz ho- riek, «Ordizian modu berezian» islatzen direlako. Euskal Herriko 10.000 biztanletik gorako herrien artean migrazio tasarik altuene- tarikoa duen herria da: %21,09 (abenduko datua). 0 eta 16 adin tartean ia ikasleen laurdenen familiek jatorria atzerrian dute; Haur Hezkuntzan 0 eta 5 urte artean, jatorria atzerrian duten familien ehuneko %37koa da, eta 2 eta 3 adin artean, ia hau- rren erdiaren familiek atzerrian dute jatorria. Familien jatorria- ren baitako ikasleen banaketan, desoreka «handia» da herriko beste ikastetxeekin alderatuta: ehuneko 31.5 puntukoa. Euskal- duntzeari lotuta, egun Ordizian, ikasleen tutoreen %59 euskal- duna da, baina tutoreen euskara ezagutzaren baitan ehuneko 48 puntuko desoreka dago herriko ikastetxeen artean. Aniztasun horri eta euskalduntze-estrategi- egi publikotik eman nahi diote erantzuna, eta horretan ari dira lanean Urdaneta-Oiangu- reneko komunitatean ere.

## Saretzeko eguna

Orokorrean euskal eskola pu- blikoaren lanketa da, ez soilik Ordizian. Horrek batuko ditu komunitateko kideak igandeko festan: «Geurea ez da kasu isolatu bat, segregazioa eta pribatizazioa gobernu- aktiboki bultzatutako politiken ondorio da. Euskal Eskola Publikoa ez da lehentasuna gobernuentzat. Ezinbestean al- darrikatu behar dugu Eskola Pu- blikoak gizarteraren kohesioan, euskalduntzean eta aniztasuna- ren kudeaketan duen ezinbeste- ko rola». Aldarriez harago, halere, Euskal Eskola Publikoko kideak saretzeko, ahalduntzeko, aktiba- tzeko eta komunitateak egiten duen lana ospatu eta aitortzeko eguna izango da.



San Juan

**ORDIZIA**

**21 ETXEBIZITZEN SUSTAPENA**

Etxebizitzen diseinuan parte hartzeko aukera, erabiliko diren materialak aukeratuz



Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiria A maila



Aldape Etxegileak

ERRESERBATU ZURE ETXEBIZITZA ORAIN

943 814 750  
608 524 310

[www.aldapetxegileak.com](http://www.aldapetxegileak.com)



Euskal Eskola Publikoaren Jaiak utziko duen ondareetako bat 'Munduketariak' unitate didaktikoa izango da. Izen bereko liburua baliatuta, «funtsezko» konpententziak lantzeko gida ondu dute.

## Biharamunean ere, ikasten segi

↑ 'Munduketariak' lanaren atzean dagoen taldea. L. G.

→ 'Munduketariak' liburua. Salgai dago. HITZA

gandean izango da Euskal Eskola Publikoaren Jaia, baina astelehenean ere izango du eragina. Festa-  
ren oinordekotzako bat *Munduketariak* unitate didaktikoa izango da. Hau da, *Munduketariak* eskola publikoaren 31. festaren testuinguruan Patxi Zubizarreta idazle ordiziarra eta Jokin Mitxelena marrazkilariak sortutako lana da, EHIGE Euskal Herriko Ikasle Gurasoen Elkarteak eta Ordiziako Euskal Eskola Publikoko komunitateak bultzatuta; liburua ardatz hartuta, ipuina oinarrian duen unitate didaktiko bat ere sortu dute etorkizunera-ko. «Publikotasuna, euskalduntzea, aniztasuna eta inklusioa» ditu ardatz, egileek kontatu dutenez.

Helburuak, zehazki, lau dira: «Aniztasuna, hezkidetza eta inklusioa balio positibo moduan indartzea; Euskara denok batzen gaituen hizkuntza gisa ikusi araztea; Euskal Herrian elkar bizi diren hizkuntzak balioan jartzea; eta, Euskal Eskola Publikoko Komunitatea sendotzea». «Ikas egoera honetan, ipuineko gertaerak eta ikasgeletako errealitatea

dira abiapuntu. Horretarako, Publikotasuna, euskalduntzea, aniztasuna eta inklusioa landu, hausnartu eta balioan jarriko dugu», gaineratu dute.

Eta nola lortu hori? Bada, ia horgei zeregin diseinatu dituzte, lau atazatan sailkatuta. Zereginak soltean egiteko ere diseinatu dira, ikastetxe edo irakasle bakoitzak nahi duen bezala antolatu edo egokienak ikusten dituenak burutzeko. Halaber, ataza eta zeregin guztiak modu inklusibo batean antolatu dira, ikasle guztiek egin ahal izateko.

Unitate didaktikoa 4., 5. eta 6. mailako ikasleengan pentsatuz diseinatu dute. Izan ere, *Munduketariak* liburua adin horretako irakurleei zuzenduta dago. «Hala ere, 2. eta 3. Zikloko ikasleentzat diseinaturik egon arren, beste adin taldekoek ere egin ahalko dituzte bertan proposatzen diren zereginak. Horretarako, irakasleak maila bakoitzaren arabera zereginak aukeratu eta antolatu beharko ditu», zehaztu dute.

Unitate didaktikoari esker «funtsezko» konpententziak landuko direla esan dute. Hala nola, Hizkuntza komunikaziorako konpententzia, Eleaniztasunerakoa,



«Publikotasuna, euskalduntzea, aniztasuna eta inklusioa landu, hausnartu eta balioan jarriko dugu»

Matematikarakoak eta Zientzia, Teknologia eta Ingeniaritzarakoak, Konpententzia Digitalak, garapen pertsonala eta soziala, Herriartasunerako Konpententzia, Ekintzailtzarako Konpententzia eta Kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako konpententziak.

### LIBURUA

Gelazkina hegazkina da *Munduketariak* liburuko lotura. Horren bidez, protagonista bakoitzak haurrak munduko lurralde ezberdinetara eramango ditu, eta

hor sortuko da kontua. Espiritu «inkonformista» du liburuak idazlearen hitzetan, eta aldi berean, «harresien espirituaren kontra itzulpenaren espiritua» aldarrikatzen du. «Bilatzen du beste era bateko Ordizia bat eta hortik aurrera beste era bateko errealitate bat».

Idazlea Urdaneta eskolan izan zen irakasle eta gurasoekin lana ontzeko, eta haren esanetan, «esperientzia ederra» izan da idazte-prozesua. Salgai dago liburu dendetan. ●

urdaneta  
oianguren  
Ordiziako euskal  
eskola publikoa



ekainak 2 - Ordizia!

publikoa aI do!

Euskal Eskola Publikoaren 31. jaia!







1

### Plaza Nagusia

#### Larunbatean



- 17:00 Goitiberak
- 17:30 Burrunbazale txaranga
- 19:30 Esanezin kontzertua
- 22:00 Etxepe kontzertua

11:30 Reperkusion feminista batukada

12:00 Pirritx, Porrotx eta Marimotots. Ez gara jaitsiko

15:30 Goxua'n Salsa kontzertua

17:30 Dupla kontzertua

 Bazkari gunea. Kroketak 

**Garagartza plaza. Egun osoan zehar**  
Puzgarriak

**Goen plaza. Egun osoan zehar**  
Musta perkusio tailerra

2

 kutxa

### Barrena parkea

- 11:00 Hasiera ekitaldia 
- 12:30 Izaskun Mujika Ipuinen lapikoa   
**berria**

15:30 Gora bihotzak!  
Antzerki musikala (Eidabe)

17:30 Antxo ta Pantxa  
Eman bizia antzerkia

#### Egun osoan zehar

**Kaiku baserria**  
Tailerra eta ikuskizuna



PAI  
Jolas kooperatiboak

Jokai jolasak  
Euskal mitologia

Munduketariak gunea

**berria**  
Gunea

3

### Pilotaleku txikia

#### Egun osoan zehar

Eroski  
Elikadura eskola



### Zuhaiztia (Arboleda)

#### Egun osoan zehar

Makusi gunea

13:30 Photocall Golazen  


### Beti Alai pilotalekua



Bazkari gunea  
Hanburesak eta barazki parrilada



Paella  
urdaneta  
oianguren 



ekainak 2  
Ordizia!

# publikoa aI do!

Euskal Eskola  
Publikoaren 31. jaia!

## 4 Jose Migel Barandiaran plaza

11:30 - 13:00

Gimnasia erritmikoa  
Saskibaloia

13:00 - 14:30

Eskubaloia  
Rugby

15:30 - 17:00

Futbola  
Txirrindularitza

### Gudarien etorbidea Standak

Ikas-Bi

Euskadiko GGKEen  
koordinankundea

Euskal Herrian Euskaraz

EEPaz Harro



Gune guztietan

Ibiltariak

Magoak

Burrunbazale txaranga

Ordiziako erraldoiak +  
Musika Eskola banda

Ordiziako Txistulariak +  
Euskal dantzak

Reperkusio feminista  
batukada + EEPaz Harro



Janaria

Ordutegia: 13:00-15:30

Bertako paella ekologikoa:  
8 €

Eskuz egindako kokretak:  
2 €

Barazki parrilada: 3 €

Eusko Label produktuekin  
egindako burgerrak: 2,5 €

\*Etekinak hamaiketako  
osasuntsura bideratuko  
dira.



Aparkalekuak

Autoak:

Trevijano

CAF

Urdaneta ikastetxea

Goierri Eskola

Goieki

Autokarabanak:

San Bartolome

Autobusetan pertsonak  
jeitsi eta jasotzeko:

Orkli



Informazio gunea

(Egitaraua + jarraibideak)



Informazio gunea + tiket salmenta

(Egitaraua + bazkaria)



Denda

(EEPJ materiala)



Garraio publikoa

Lurraldebus - Renfe



Zeinu-hizkuntza



Adi azken orduko informazioari

Euskal Eskola Publikoaren Jaia





↓ Arruabarrena,  
Azkona, Urkiola eta  
Madariaga. L. P.



Urdaneta eskola 50. urteurrena ospatzen ari da aurten. 1974. urtetik egindako bidea erreparatu dute Mari Jose Urkiolak, Mari Jose Arruabarrenak, Maialen Madariagak eta Naiara Azkonak. Garapena handia izan dela bat egiten dute denek.

## 50 urte eta hamaika erronka

Leire Perlines

**B**erde eta urdin. Aniztasuna eta euskara oinarri. Hitz horiekin laburbildu daiteke Urdaneta Euskal Eskola Publikoaren muina. Ehun-ka ordiziar, ehun-ka goierriar, eta, oro har, munduko hainbat lekutako haurrak bildu ditu Urdanetak ibilbide oparo honetan. 1973-74 ikasturtean zabaldu zituen ateak eskola publikoak Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikasleekin, eta gazteleraz ematen zituzten eskolak hasiera batean.

Zortzi urte geroago, guraso talde baten laguntzari esker, B eredia -ikasgaiak euskaraz zein espainieraz, neurri berean ematea- ezarri zuten. Urte gutxi egin zituen ordea eredu horrek indarrean, 1985-86 ikasturtean D eredia ezarri baitzuten; euskara hutsean irakastea, alegia.

Mari Jose Urkiolak (Salbatore, Beasain, 1956) duela zortzi urte hartu zuen erretiroa urte mordoan Urdanetan egin ondoren. Konkurtsatu zuen garaian

bere gustuko metodologia zuten eskolen bila hasi zen, eta han egin zuen topo Urdaneta Euskal Eskola Publikoarekin. «Ni eskola honetara iritsi nintzenean erabaki garrantzitsua dagoeneko hartuta zegoen», dio Urkiolak. Izan ere, Urdanetan D eredia sartu ondoren iritsi zen eskolara. Hala ere segituan nabaritu zuen aldaketa bat iristear zela. Eskola potente gisa gogoratzen du irakasleak ikastetxea, eta, «zalantzarik gabe», dio pedagogia arlotik indar eta gogo handia nabaritzen zituen.

Mari Jose Arruabarrena (Ordizia, 1960) ere inflexio puntu batean iritsi zen Urdanetara, beste herrialde batzuetako familien haurrak eskolara iristen ari ziren unean, alegia. D eredia ezarri zenean erabaki zuen bere alaba Urdanetan matrikulatzea, eta erabaki hori hartzea guraso askorentzat apustu handia egitea izan zela dio, baina eskola publikoaren aldekoa izanik, argi izan zuela zein erabaki hartu. Denborak aurrera egin ahala ikusi du Arruabarrenak beste herrialde batzuetako familiek nahi duten gauza bakarra kohesio bat egitea dela, seme-alabak ondo sentitzea,

funtsean. «Gure ardatza euskara den bezala, hizkuntza ugari horiek asumitu egin ditugu, eta gure lana izan da familia horiek guztiak ondo sentiaraztea», gehitu du.

Maialen Madariaga (Antzuola, Gipuzkoa 1983) da mahai ingurua osatzen duen hirugarren emakumea, Urdanetako irakaslea bera ere. Madariagak hitza hartu, eta euskaraz gain beste 31 hizkuntza ezberdin dituztela eskolan hasi da esaten, eta horrek erronka handia suposatzen duela erantsi du. Hala ere

Madariaga irakasle izateaz gain ama ere bada, eta herrian euskal hiztun gutxi daudela ikusita, euskal eskola publikoaren alde egin duen beste familia baten parte bihurtu da. «Euskal hiztun gutxi egoteak eskolan egindako lan guztia ez ikustea eragiten du. Kanean ez dute haur askok euskara erabiltzen, baina horrek ez du esan nahi eskolan ez denik lanketarik egiten, jasotzen duten maila izugarria baita. Asko sufritu dugu, eta oso mingarria izan da. Herrian ez da islatu eskolan egin dugun ezta egiten ari

### Ordiziako gizartea aldatu den moduan, Urdaneta eskola ere egokitu da

argi dauka Madariagak grina daukate-lanean jarraitzeko, eta gogo horrek indarra ematen diela.

Madariaga irakasle izateaz gain ama ere bada, eta herrian euskal hiztun gutxi daudela ikusita, euskal eskola publikoaren alde egin duen beste familia baten parte bihurtu da. «Euskal hiztun gutxi egoteak eskolan egindako lan guztia ez ikustea eragiten du. Kanean ez dute haur askok euskara erabiltzen, baina horrek ez du esan nahi eskolan ez denik lanketarik egiten, jasotzen duten maila izugarria baita. Asko sufritu dugu, eta oso mingarria izan da. Herrian ez da islatu eskolan egin dugun ezta egiten ari garen lana ere», azpimarratu nahi izan du nolabaiteko tristura erakutsiz.

garen lana ere», azpimarratu nahi izan du nolabaiteko tristura erakutsiz.

Naiara Azkona (Beasain, 1979) ere irakaslea da gaur egun Urdanetan, eta bi rol gorpuztu ditu Ordiziako eskola publikoan: ama rola batetik, eta irakaslearena bestetik. Plaza eman ziotenean Urdaneta aukeratu zuen errealitate aldutzen ari zela jakitun izanik. Azken urteetan Ordizian aldaketa izugarria eman dela dio herri zein eskola mailan, eta bere ustez eskola honek bere gain hartu du herrian zegoen errealitate bat.

Gaur egun Urdanetako gelak lau txokotan daude banatuta, eta txoko bakoitzean taldeak egiten dituzte, adinak nahastuz. Txoko bakoitzean lan bat egiten dute era autonomoan, eta irakas



## «Bizitzeko behar diren tresna guztiak» jasotzen dituzte Urdanetako ikasleek Amara Berrin

lea laguntza eskaintzen joaten da, baina beraien artean laguntzen dira. «Sistema honetan denek egin behar dute bat, eta elkar eragiten dira», dio Azkonak. Urkiolak ere ildo beretik jarraitu du: «Bizitzeko behar diren tresna guztiak lantzeko aukera daukate Amara Berri Sisteman; laguntza eskatu, laguntza eskaini, adostasunera iritsi...».

Egunak joan eta egunak etorri, eztabaida handiak izan zituzten garaiko Urdanetako irakasle taldeak, baina 1993-94 ikasturtean ezarri zen Amara Berri Sistema Haur Hezkuntzan; 1994-95ean Lehenengo Zikloan; 1995-96an Bigarren Zikloan, eta 1996-97an Hirugarren Zikloan.

Koherentzia handia duen sistema gisa deskribatu dute Amara Berri Sistema hitzorduan. Haur Hezkuntzan hasi eta Lehen Hezkuntzan jarraitzen du. Haur Hezkuntzan jolasa dute ardatz, eta denbora tarte horretan testuinguru batzuk lantzen dituzte. Gero, hain zuzen, testuinguru izan diren horiek departamentu bihurtzen dira, eta azkenik hirugarren ziklora egiten dute jauzi horiek. Hirugarren ziklokoak prentzaz arduratzen dira, eta jasotzen duten hori kudeatu eta kanporatzen dute etxeetara bidaliz zein eskolako webgunean zabalduz.

Aipatutako departamentu horiek hilabetean behin aldatzen dituzte, eta irakasleak denbora tarte horretan haurra behatzen du. Umea non hasi den eta non amaitu duen begiratzen dute, haren heldutasun non dagoen, zer egiteko gain den... Baina Urdanetako irakasleek sinesten dute hori ezin dela kontrol batekin zehaztu.

Madariagak haien lana irakasleena izateaz gain, besteak beste, erizainena eta psikologoena ere badela dio. Bi urteko gelara alfabetatu gabeko familia asko iristen dira, eta irakasleek emandako ohar eta azalpenak ez dituzte ulertzen. Ia 600 ikasle biltzen ditu Urdanetak, eta nahiz eta jatorri ezberdinetako gurasok izan,

argi daukate beraien seme-alabak hemen jaiotakoak direla, eta argi daukate eskola dela zubia. Ikuspegi horrek, beraz, konfiantzazko giro bat sortzen dutela diote irakasleek.

Gauzak horrela, haurren ongizate emozionala bilatu behar dutela dio Madariagak, baina argi dauka haurra ondo egoteko lehenbizi etxeak egon behar dela ondo. «Haur horiek dira gure etorkizuna, eta ezinbestekoa da ondo heztea eta herrian ondo integratzea. Herri bat gara, eta denon artean lagundu behar gara», jarraitu du.

Urteen poderioz Urdaneta ikastetxea aldatzen joan den moduan, gaur egungo Ordiziako plazan eta duela hamar urteko plazan aldaketa nabari bat sumatu dute Urdanetako bilera gela batean elkartzuta dauden lau irakasle eta irakasle ohiek. Gaur egun plazan ume mordoa ikusten dira, eta hori lotsa kentzearen ondorio izan dela argi daukate. Hori izan da, hain zuzen, herrian gaintu behar izan duten erronka nagusietako bat Azkonaren ustez: ez ezkutatzea. «Haurrak ordiziarrak dira, eta ez dira ezkutatu behar».

Madariagak ordea beste erronka bat mahai gaineratu nahi izan du: seigarren mailako ikasleei nongotarrak diren galdetean «euskaldunak, ordiziarrak» direla erantzutea. Haurrek bere identitatea nortasuna garbi izatea da helburuetako bat, eta argi izatea hemengoak direla

### Elkarbizitza helburu

Laguntza ere funtsezko ekimena da Azkonaren ustez: «Atzerritarren haurrak euskaldunak dira, eta guk laguntza euskaldun hori izan behar dugu».

Etorkizuneko Ordizia imajinatzea izan da hurrengo pausoa, eta bat egin dute erantzunekin. Elkarbizitza bat ikusi nahi dute non denentzat dagoen lekua eta inor ez den beste inor baino gehiago ezta gutxiago ere. Aurreiritziak kentzeko borroka egin



**1** Duela hilabete mila lagun elkartzu ziren, Ordizian egin den bazkariririk handienan AIMAR MAIZ

**2** Garai bateko eskola. Egun, goitik behera berrituta dago. Beste bi eraikin dituzte. URDANETA

**3** Eskola irratia hastapenak. Euskara eta eskolako lana zabaltzeko bidea da. URDANETA

**4** Urteak pasa arren, irratia aurrera darrari. Teknologia ere garatu da, eskolaren pare. URDANETA

nahi dute. Duela urte batzuetako egoera berdinarekin aurrean aurkitzen dela Ordizia diote, baina globalizazioaren ondorioz, jatorria aldatuta.

Euskal Eskola Publikoaren jaialdiaren ondoren ere berdinean jarraitzea da asmoa. Ikasturte osoan zehar negar, barre eta denetatik egin du irakasle taldeak, baina argi daukate festa hori bultzada handia izango dela haien bidean jarraitzeko. Urdanetaren 50 urteko bazkarian Madariagarengana ezagutzen ez zuen gazte talde bat gerturatu eta inoiz haurrak izaten badituzte Urdanetan matrikulatuko dituztela esan zioten. «Horretan sinesten dutelako gertatu zen hori, eta horrek erakusten du nolabait herrian ari dela jasotzen egiten dugun lan guzti hori», dio.

Hala ere laguntzarako deia ere egin dute. Arruabarrena: «Publikotasuna eta euskara ondo lantzen dira, edo etorkizunean ez da lortuko nahi dugun Ordizia hori. Etorkizuneko Ordizia horrek komunitate guztia bildu behar du».

Elkarbizitza amaietan ondo laburbildu du Azkonak lauren sentimendua: «Euskal Herria maite badugu haur horiek gureratu behar ditugu, eta ez alden. Euskal Herriarekiko atxikimendua eduki behar dugu, eta bertakoratu. Inork gure seme-alabek non amaitu behar duten, eta kanpoan bukatzen badute ere leku horretan ondo artatua izatea nahi genuke. Pentsamendu horrekin jokatu behar dugu». ●





Naroa Elortza. LAIDA GOIBURU

# «Merezi dugu ospatzea egiten ari garen lan ederra»

## NAROA ELORTZA

Ordiziako Euskal Eskola Publikoko komunitateko kidea

Ordiziako Euskal Eskola Publikoko komunitateko kideak, EHIGEREkin, buru belarri aritu dira ikasturte osoan igandean ospatuko den jaia antolatzen eta komunitatea saretzen eta aktibatzen. Euskal Eskola Publikoak inklusioan, aniztasunean eta euskalduntzean egiten duen lana aldarrikatuko dute.

### ORDIZIA—Laida Goiburu

#### Zer moduz doa antolaketa? Dena prest?

Ekainaren 2a bertan dugu, baina guretzat festa aspaldi hasi zen! Ikasturte osoa daramagu gure agendak ekintza eta topaketek betetzen, etengabeko antolaketan lanetan gabiltzala iruditzen zaigu! Egia da Ordiziako hezkuntza publikoko kideontzat gakoa dela komunitatearen ahalduntzea, aktibazioa eta inplikazioa.

Urteotan egiten ari garen lan guztiak eta aurtengo ikasturtean aurrera eraman ditugun ekimen eta proiektuek parte-hartze handia eskatu dute, eta komunitatea are gehiago aktibatzea eskatu du. Esango nuke Ordiziako hezkuntza komunitatearentzat ikasgai eta mugarririk garrantzitsua izan dela aurtengoa. Lehendik ere bagenuen esperientzia jai jendetsuak eta 800 lagunentzako otorduak prestatzen, komunitatea saretzeko estrategiak bilatzen edota

proiektu berritzaileak bultzatzen; baina aurtengoa horren guztiaren ginga izaten ari da.

**Eskola publiko euskalduna, kalitatezkoa, inklusiboa, ekitatiboa, demokratikoa, laikoa, berritzailea eta solidarioa defendatzen du EHIGEk. Zein dira oztopo nagusiak hori garatzeko?**

Hezkuntza publikoa ez da gobernuarentzat lehentasuna, hezkuntza legeak berak argi utzi duen moduan. Eskola Publikoa hezkuntza sistemaren ardatz izan dadin lan egin behar dugu; publikotasuna, inklusioa, aniztasuna, ekitatea, ikasle guztien euskalduntzea bermatzen dituen da. Gobernu eta udal arduradunei erantzukizun hau eskatu behar diegu. Eta bestalde, Eskola Publiko bakoitzeko komunitateak (irakasle, hezitzaile, langile, ikasle, familiak) ahaldundu behar ditugu. Ahaldundu eta saretu. Gobernuari eskatu behar diegu eskola publiko indartzeko, baina ezin dugu beraien zain egon. Ditugun egiturak, baliabideak eta komunitatea aprobetxatu behar dugu guk ere gure lana egiteko. Oso jendarte konplexua dugu jada eta are konplexuagoa izango da aurrerantzean, anitza, egoera sozial gero eta konplexuagoak, sozializazio beharrak, euskalduntze erronkak, teknologia berriak eta digitalizazioa...

#### Zein da egoera Ordizian?

Urteak daramatzagu Ordizian bizi dugun errealitate gordina azaleratu, konponbideak eskatu eta bilatzen. Ordiziako herritarren bostetik batek jatorria atzerrian du, eta familia hauetako haurren proportzioa nabarmen handiagoa

da. Haurrik txikienen artean, bostetik biren familiek atzerrian dute jatorria eta herriko bi ikastetxeen artean oso modu desorekatuan banatuta daude.

Dena den, desorekei buruz hitz egitean ezin dugu alde batera utzi desorekak erpin gehiago dituela; jatorri aniztasunaz gain, euskarene ezagutzan eta maila sozioekonomikoan ere ikaragarriko desorekak ditugu. Horrek guztiak herriko elkarbizitzan, aniztasunaren kudeaketa aberasgarrian, ekitatean, justizia sozialarengan eta euskalduntzean zuzeneko inplikazioa du, ez da soilik eskola publikoari eragiten dion zerbaite.

Ezinbestean herri mailako soluzioak bilatu behar ditugu. Azken urteotan behin eta berriro errepikatu dugun moduan, gobernuari dagokien erantzukizunak eskatzen dizkiogu. Administrazio publikoak Euskal Eskola Publikoaren aldeko apustua egin beharko luke, kalitatezko zerbitzu publikoak ziurtatu eta herri mailako erronkari modu ausart eta eraginkorrean erantzunez.

Dena den, aldarrikapenak egiteaz gain, Euskal Eskola Publikoak aniztasunean, inklusioan eta euskalduntzean egiten duen lana aldarrikatu nahi dugu. Horregatik bilatu genuen lelo hori (publikoa al do!), horregatik oinarritu dugu gure urtebeteko agenda hiru ardatzak indartzera.

**Ordiziako Euskal Eskola Publikoko komunitateak, Urdanetarrak Guraso Elkartetik hasita, lanketa ezberdinak egin ditu urteotan.**

Urdanetarrak guraso elkarteak urteotan egindako lanak hainbat

ildo izan ditu, bost ardatz nagusietan banatzen ditugunak.

Lehenik eta behin, garrantzia handia ematen diogu komunitate osoa saretzeko komunikazioari, familia sarea izeneko proiektuarekin. Saretze honetan gakoa da euskarari lehentasuna ematea, eta horregatik itzulpen tresnak erabiltzearen aldeko apustua egin dugu.

Beste alde batetik, gure txikiak naturarekin kontaktu zuzena izateko bideak ere landu ditugu, Baso Eskola proiektua martxan jarritz, baita ere Haur Hezkuntzako jolaslekuaren eraberritzea bultzatuz. Azken urteotan burujabetza teknologikoari buruzko hausnarketa ere martxan jarri dugu, eta pantailen erabilera egokia egiteko pausoak ematen hasi gara, familiekin lanketa ezberdinak aurrera eramanez. Nola ez, desoreken aurkako borroka, aldarrikapenak eta lanketak ezinbesteko protagonismoa du gurean, eta herriko eragile ezberdinekin egungo desorekei aurre egiteko lanketak bultzatzen ari gara.

**Elikadura osasuntsua ere landu duzue. Festan islatuko da?**

Azkenik, eta hau bereziki azpimarratu nahi genukeena, elikadura osasuntsuak bultzatzeko ardatza da. Guraso elkartearen ekimenez eta eskolaren inplikazioari esker, gaur egun HH 2-tik LH 6-ra bitarteko ikasle guztiak hamaiketako osasuntsua izaten dute, egunero-egunero. Hain zuzen ere, ekainaren 2an jasotako etekinak proiektu hau finantzatzera bideratu nahi ditugu, gure eskolako ardatzetako bat bihurtu dena. Horretarako Biziola kooperatibaren eta Krokexea-ren elkarlana eskertu nahi genuke.

Beraz, gonbidapen zuzena guztiontzat: utzi etxean janaria, eta etorri elkarlanean prestatutako jatordu ederrez gozatzen!

**Jende asko espero duzue asteburuan?**

Egitaraua prestatzerako orduan ahalik eta programa aberatsena osatzen ahalegindu gara, asteburu osoko plana proposatuta. Kontzertuez gain, pailazoak, antzerkia, herriko dantza taldeen ikuskizuna, herriko erraldoiak, kirolak...herriko eragileak parte aktibo bihurtu ditugu, eta ustedut horrek are aberasgarri eta erakargarriago egingo duela hitzordua.

Dena den, zaila da jakitea zenbat jende etorriko den. Dakiguna da, datozenek festaz gozatuko dutela. Gainera, egunerokotasunean publikotasunaren alde ari garen guztiok merezi dugu festa egun bat, merezi dugu ospatzea egiten ari garen lan ederra.